



ITSASOAREN EMAZTEAK

*Itzela da, handia, umela ta gazia, beldurgarria,
iluna, amai ezina ta bizi-bizia.*

*Jostaria? Oldarkorra eta zirikatzailea,
indartsua, erronkaria!...*

*Isila, zaratatsua, iluna, argia, urdin argia, baltza,
Geldi ezina, dantzaria... dotorea.*

Geuria. Geure geuria.

ITSASOAREN EMAZTEAK izeneko ikuskizuna gorde nahi izan dugu aurkeztera gatozen CD/DVD honetan. Lehenengoan Pello Ramirez musikariak emanaldirako espresuki egindako abestiak izango dituzu entzungai. Abesti bakoitzak duen indarra eta sentimendua, DVDtik kanpora ere, CD batean gorde nahi izan dugu, doinu bakoitzak bere horretan itsasoan murgilduko zaituelako. Bigarrenean aldiz, uztailean Leidorren (Tolosa) OINKARI dantza taldeak eta HIKA Teatroak estreinatu zuten emanaldia izango duzue ikusgai oso-osorik.

Ikuskizun honek, euskal dantza tradizionala oinarri hartuta, Euskal Herriko kostaldeko arrantzaleen emazteen bizipenak kontatzen ditu. Berrogeita hamar dantzari, lau musikari eta bi aktore bildu dira taula gainean olatuaren joan etorrian, josi eta josi sareetan barrena historia bizi eta hunkigarria harilkatuz. Kresal usaineko emakumeen historia da gurea. Haien begietatik dantzatu nahi izan dugu, euren ahotatik kantatu, edota euren esku minberatuen azal gazitik hitz egin. Itsasoaren emazteak dira, kostaldeko bizitzaren piper eta gatza. Saregileak ofizioz, sardinerak afizioz...

“Karakterra biozu itsasoari aurre egiteko eta biharrari bape beldurrik ez.”

“Eskuokaz osatu dodaz arrantzale zure zauriak eta eskuokaz bildu gure umeak eta egunero josi sareak. Eskuokaz lehortu baita erakutsi gura ez dodazan malkoak ere... dana egin dot saregileon eskuokaz. Baina nik halakoetan pentzetan dot... hau usain ederra nire eskuena: kresal freskuarena!”

- **Nondik atera zen Itsasoaren inguruan emanaldi bat osatzeko ideia?**

Hasieratik izan genuen oso garbi emanaldi berriak hiru zutabe nagusi izango zituela: dantza OINKARI Dantza Taldearen eskutik, dramaturgia Agurtzane Intxaurrenaren eskutik eta zuzeneko musika Pello Ramirezaren eskutik. Lehen bilera haietako batean, hiru aldeak mahai inguruan eserita geundela, Pello Ramirez, buruan dantzan zituen doinu batzuk jotzen hasi zen. Begiak itxi eta guztiok sentitu genuen itsasoaren olatuen joan-etorria. Musika hark itsasoratu gintuen. Nota haiek aurkeztu ziguten emanaldiko gaia zein izango zen.

- **Nola joan da dantza talde herrikoi baten eta artista profesionalen arteko elkarlana?**

Primeran. Hain zuzen ere, Agurtzane Intxaurrenarengana jo genuen salto kualitatibo bat emateko beharra sentitu genuelako. Beraz uztartze hori oso modu naturalean eman da. Izan ere, Agurtzane argi ikusi zuen Oinkariko dantzariak urte hauetan maila tekniko handia lortu dutela eta batez ere ilusioz eta gogo handiz egiten dutela lan. Horrexek bultzatu zuen ekoizpenean ere HIKA bezala parte hartzea. Tolosan eszenatokian erakutsi zenak, ikuslea zeharo hunkituta eta harrituta utzi zuen.

- **Zer eman dio Pello Ramirezek proiektuari?**

Dantza eta antzerkia uztartzea izan da erronkarik handiena agian, baina Pelloren doinuak ezinbestekoak izan dira bide onera iristeko. Alaitasuna, indarra, tristura, goxotasuna, ekintza, guzti honetatik dute bere doinuek. Eta begiz zein belarriz istorioa osatuz doa. DVDaz gain CDA argitaratzeko arrazoi ezinbestekoa izan da hau, abesti bakoitzak emanaldira gerturatzen baitzaitu konturatu ere egin gabe. Irudirik gabe ere, itsasoaren kresal usaina barruraino sartzen zaizu.

FITXA TEKNIKOA

Dantzariak:

Zuzendaritza eta dramaturgia:

Dantza garaikideko koreografoa:

Aholkularitza koreografikoa:

Musika originala eta zuzendaritza:

Musikariak:

Aktoreak:

Soinu diseinua:

Argien diseinua:

Eszenografia diseinua:

Jantzien diseinua:

Diseinu grafikoa:

Argazkiak:

Talde teknikoa:

Produkzio zuzendaritza:

Produkzioa exekutiboa:

Eszenografia errealizazioa:

Ikuskizunaren bideoa:

OINKARI Dantza Taldea

Agurtzane Intxaurren

Maider Oartzabal (Kukai Dantza Konpainia) / Hika Teatroa

EK-ia Kolektiboa / Kukai Dantza Konpainia

Pello Ramirez

Angel Unzu, Xabier Zeberio, Fredi Pelaez eta Pello Ramirez

Miren Gojenola eta Agurtzane Intxaurren

Mikel F Krutzaga

Xabier Lozano

Miren Intxaurren

Azegiñe Urigoitia

Atelier Laia

Karlis Medrano eta Javier Vazquez

ABS Iluminación eta Soinua

Alazne Gurrutxaga eta Eneko Arteaga (Oinkari)

Iker Ugalde

Eskenitek

Aeroclick

